

<<Arte plastikoak eta ikusizkoak>>

S. Eraso - F. Larcade - L. Onzain - F. Rodríguez - N. Rodríguez

Área 2- Creación y Expresión Artística

2. Arloa: Sorkuntza eta Espresio Artistikoa

(Euskarazko bertsioa- Versión en euskera)

Febrero, 2003ko otsaila

ARTE PLASTIKOEN ETA IKUSIZKOEN ESPARRU-TXOSTENA.

KULTURAREN EUSKAL KONTSEILUA

Santiago Eraso, Franc Larcade, Lucia Onzain, Fito Rodriguez eta Natxo Rodriguezek egindako testu eta ekarpenetan oinarritutako testua.

INDIZEA

1. Sarrera

2. Diagnostiko publikoa

2.1 Jarduera artistikoa ulertzeko modu zaharkitua

2.2 Gaur egungo ekintza-lerroak

3. Proposamenak

4. Laburbilduz

1. Sarrera

Gure oroitzapeneko hainbat erreferentzia kultural arte eder tradizionalen printzipioetan oinarrituz osatu dira. Printzipio horiek erreferentzia-polo gisa erabili dituzte herritarrek eta, aldi berean, informazioa eta baliabide sinbolikoak aurkitu dituzten haietan.

Gaur egun, sorkuntzari eta oraingo jardueri laguntzeko kultura-politikak modernitatearen printzipioetan inspiraturik daude. Alabaina, printzipio horien sustraiak aurkitzeko, XVIII eta XIX. mendeetako idealismoraino eta erromantizismoraino joan behar da. Politika horien defentsa artista indibidualaren inguruan sistematizatu da; artistek objektu artistikoaren balio ukaezinetik egiten dute lana, eta galeriak, museoak eta horrelakoak dira objektu horiek erakusteko leku naturalak. Egia da hainbat artista oraindik ere objektu artistikoaren balio sakratuan oinarritutako produkzio-sistemaren premisen gainean aritzen dela lanean, eta behin eta berriro adierazten duela arlo artistikoak beste testuinguru batzuekiko autonomia duela. Artistaren kategoria horrek modernitatearen printzipio idealisten eragina du, eta printzipio horiek artista jeinu bakartizat hartzen dute, alienatu gabeko jeinua, egiletasunari lotua eta lana garatzen duen testuinguruaren kontraesan ekonomiko eta sozialek eragiten ez diotena.

Horrek, ordea, ez du zerikusirik errealitatearekin. Paradigma hori krisian dago azken urteetan. 60ko hamarkadaren amaieran eta 70eko hasieran, artista batzuk balio tradizionalak zalantzan jartzen hasi ziren, hain zuzen, artearen sistema oinarriturik zegoen balio horietan. Baina azken hamarkadan azkartu da, batik bat, paradigman aldaketa. Jose Jimenez arte-irakasle eta -kritikariak honako hau dio: *“Gaur egungo arteari buruzko gaizkiulertu asko aurreiritzi ‘naturalistatik’ sortu dira. Aurreiritzi horren arabera, artea betikoa eta guztiontzat baliozkoa da. Ezinbestekoa da aurreiritzi hori suntsitzea. Artea ez da erakutsi behar ez den gauza bat bezala, izatera iritsi den gauza bat bezala baizik, egiten (desegiten) joan dena transformazio kulturalen prozesu luze batean zehar. Modernitateak estetikaren zabaltze mugagabea dakar, arteak bere lurralde zaharraren aginte eksklusiboa galtzen baitu eremu horretan, irudikapenaren unibertso global berri bati tokia uzteko.”*

Halaber, XXI. mendearen hasiera honetan, batetik, kultura bateraturantz goaz, edozein oztopo gaindituz: tradizio kultural desberdinak, muga geografiko eta politikoak, baita hizkuntza ere; bestetik, kultura zatikatu, anizkoitz eta askotariko baterantz goaz. Ikus dezakegu mugimendu horiek planeta osoko bizimoduak aldatzen ari direla, eta, ondorioz, baita esperientzia kulturala produzitzeko moduak ere. Postmodernitateak sorkuntza artistikoaren nukleoa desitxuratu du eta geometria aldagarrien esparru kultural berri batean kokatu du. Esparru horretan, talde-lanak eta beste eremu ekonomiko eta ekimen kultural batzuekin dauden harremanek sorkuntzarako testuinguru berriak eta sorkuntza artistikoa ulertzeko beste modu batzuk zehazten dituzte. Horren ondorioetako bat da ohiko ‘genero’ artistikoak –jarduera edo aktibitate bereizitzaileak– behin betiko desagertzea. Beste ondorio bat, berriz, proposamen berriak agertzea da, eta ez dute ezinbestean ohiko eremuen esparruan agertu behar. Proiektu horien guztien atzean dagoen gizakiaren paisaiak badirudi edozein ingurune sortzailetan sartzeko gai den jende osatuta dagoela. Jende hori gero eta gutxiago zehazten den ingurune profesionalean bizi da eta, gainera, etengabe aldatzen da beste arlo profesional eta ekonomiko batzuekin duten etengabeko elkarrekintzen ondorioz. Gero eta gehiago, artistek proposatutako proiektuek duten testuinguruak lana bere inguru kultural, sozial, ekonomiko eta politikoan kokatzen du.

Yves Michaud filosofo eta arte-kritikari frantsesak hau esan du duela gutxi elkarrizketa batean: *“Arteak, hasiera batean, ez du nagusitasun-posiziorik eta artistak bere inpotentzia onartu behar du. Are gehiago, arteak desegiteko joera du. Guztia edertasunaren zeinuaren azpian jartzen duen gizartean, kirol-keinoa artea da, makillatzea artea da, diseinua artea da, gorputza artea da, sukaldea artea da, dena da artea, artea bera izan ezik. Artea gas-egoerara pasatzen da. Toki denetan dago eta ez dago inon. Bada garaia nork bere buruari galdetzeko zer dagoen museo eta galerietan eta zergatik jarraitzen duen hor oraindik.”*

Bestalde, bistakoa da ikusizko izatearen, espazio publikoaren eta demokraziaren arteko lotura gero eta zuzenagoa. Interesen aliantza hori, irudi publiko eta pribatuaren hainbat mekanismoren bidez azaleratzen da: publizitatea, diseinua, telebista, Internet... Jarduera kulturalen dibertsitatea arrisku larrian dago kulturaren behin betiko merkataritza-balioaren ondorioz, hau da, esperientzia kultural guztiak merkaturatzearen ondorioz. Jarduera horiek guztiak enpresa handien helburu dira eta haiek eskuratzen saiatzen dira berehalako errentagarritasuna ematen duten produktu bilakatzeko. Irudien sare kaotiko horretan, hain zuzen, sortzaileak esku har dezake eta hartu behar du, gaur egungo sorkuntza-eremuak irizpide merkantilisten edo errentagarrien esku ez uzteko.

Azken finean, artea ez da objektuen materialtasunera murrizten; alderantziz, herritarren eguneroko bizitzan dituen eraginaren bidez neur daiteke. Jean-Marie Schaffer-ek honako hau dio: *“Gure esperientzien dimentsio estetikoak gure jarreraren alderdiekin lotura handiagoa du artelanen kanpoko ezaugarriekin baino. Adibidez, publizitate-mota jakin batzuek eragin estetiko handiagoa dute mendebaldeko kulturaren kanonak klasiko gisa onartutako artelanek eragindakoa baino. Arteak edertasunaren monopolioa galdu du eta modaren, zinemaren, publizitatearen eta kultura elektronikoaren ikus-entzunezko efektuen esku gelditu da. Arte kontzeptuala herri estetizatu batek xurgatu du eta herri hori gaur egungo sorkuntzaren ekitzatarlo guztiak xurgatzeko gai izan da, hainbat irudikapen-mekanismoren bidez.*

Ildo horretatik, Manolo Borja Villeda Bartzelonako Arte Garaikideko Museoko zuzendariak honako hau dio: *“Sektore batzuek kulturari buruzko ikuspegi erabilgarria dute eta kontsumo kulturala eta turismoa sustatzea dute helburu; ikuskizunari ematen diote garrantzia eta ez kulturari, negozioaz eta agonia gisa. Bestalde, kultura nortasun gisa erabiltzearen ideia erromantikoa oso zabaldua dago. Txanpon beraren bi aldeak direla uste dut. Arazoa bera da: artelana fetixista bihurtzea eta gure subjektibitatea merkantzia bihurtzea. [...] Niretzat bildumazaletasuna ez da oroitzapenen eta ‘hildako materialen’ metaketa soila. Nik W. Benjaminen moduan ulertzen dut, ‘oharkabeko memoriaren’ antzeko zerbaitera hurbiltzen den ezagutzeko modua da niretzat, eta esperientzia eta irudien erreserba izugarria, polimorfikoa eta irekia osatzen du. Uste dut oraindik ere posible dela artearen ikuskera burgesaren oinarriak zalantzan jarriko dituen bilduma osatzea. Gure egitura artistikoaren azpian dagoen eztabaida merkatuarekin lotutako parametroetan gehiegi finkatua dago. Beharrezkoa da guztiok gure erantzukizuna hartzea eta arteak gure inguruan beste paper bat eduki dezakeela onartzea.*

Azken urteotan, hainbat artistek luzapena proposatu dute erreminta formal eta kontzeptual berriak gara daitezen etorkizuneko estetikaren elementuak zein izango diren pentsatzeko: trukearekin eta informazioarekin zerikusi handiagoa duen lana, mugitu eta alda daitekeena, gizarteak garatu dituen tresna, baliabide eta teknologiak optimizatzen abiatuta.

Gero eta gehiago, artistek proposatutako proiektuak kokatzen diren testuinguruak lana bere inguru kultural, sozial, ekonomiko eta politikoa kokatzen du. Jorge Ribaltak hau idatzi zuen *Servicio Público* liburuan (1998): *“azken urteetan, azken hamarkadetako premisetatik urrun lanean ari diren sortzaileen belaunaldia agertu da. Era berean, egitura horietan artearen leku kultural eta sozialari buruzko hausnarketa egiteko eremua topatzen zuen egitura artistikoa eta kultura eztabaida- eta definizio-prozesuan sartu dira.”* Jarrera horiek zerikusi handia dute arrazoi hauekin besteak beste: objektu artistikoen produkzioaren krisia, enplegu-ezegonkortasuna, iragankortasun soziala, nomadismoa, ikerketak balioa galtzea (fabrikazio-leku gisa, proiektuak egiten diren eremu errealean onerako), teknologia aurreratuetarako sarbidea eta autoekoizteko erraztasuna. Horrek prozesualki edo proiektiboki lan egiteko aukera emango die artistei, eta sektore sortzaileko beste jarduera profesional batzuetatik hurbil dauden jakintza-alor askoko dinamikak sortuko dituzte: diseinua, edizioa, musika, moda, arkitektura, hirigintza, etab.

Gero eta proiektu artistiko gehiago prestatzen dira beste eragile batzuen lankidetzadynamikarekin eta gero eta gutxiago indibidualismoan oinarriturik; proiektu horiek testuinguru zabal batean aurkezteko asmoarekin produzitzen dira eta ez artearen eremu tradizionaletan aurkezteko. Horrela, artistek arte konbentzionaletik eratorritako betebeharrak baldintzaturik ez dauden proiektuak prestatzen dituzte eta beren ideien eta testuinguru zabalaren arabera pentsatzen saiatzen dira, testuinguru horretan beren proposamenak aurkez baititzakete.

Gaur egungo proiektu artistikoa hainbat arlotan zeharka sartzen da, erabilgarria izateko asmoarekin: kultura eta hirigintzan, turismoan, ekonomian edo komunikabideetan, baita eguneroko bizitzan ere; sektore horiek guztiak zeharkatzen ditu eta parte hartzeko jarrerak sustatu eta kritikoei bidea ematen die. Horrela, esan daiteke artea, askotan, begiratu eta jardun behar dutenen begiradak iristen ez diren lekura iristen dela.

Efektu garaikideen beste produkzio- eta hedatze-eredu batzuetan pentsatu behar da. Efektu esan dugu, izan ere, sarritan egindako lanak ez dira objektu bezala konfiguratu, forma eta nolakotasun materiagabea duten proiektu bezala baizik. Halaber, efektu horiek aurkezteko eremuak ez dira orain arte erabili ohi direnak (galeriak, erakusketa-aretoak, museoak); orain lurralde zabal bat dugu, non edozein espazio proiektu batek bete dezakeen edo bertan esku har dezakeen eremua baita.

Laburbilduz, Arthur C. Dantonek diotenarekin bat egitez: *“Arte garaikidea anitzegia da asmo eta ekintzetan, eta ezin da dimentsio bakarrean atzeman. Artista, galeria, artearen historiaren jarduerak eta estetika filosofikoaren diziplinak aldatu egin behar dute era batean edo bestean, eta, agian, erabat aldatuko dira, aspalditik izan direnarekin konparatuz. Gaur egungo egiturek jarrera sortzaile berriak hartzeko duten zailtasuna dela eta, hausnarketa egin beharra daukagu ez bakarrik begiratzeko moduari buruz, baita produzitzeko eta emaitzak aurkezteko moduari buruz ere.*

2. Diagnostiko publikoa

2.1 Jarduera artistikoa ulertzeko modu zaharkitua

Euskal kulturaren mapa 80ko hamarkadan berri zen estatutuaren garapenaren babesean. Hori espainiar estatuak 70eko hamarkadaren amaierako demokratizazio-prozesuaren ondorio zuzena izan zen.

Euskadin ezarri zen baliabide publikoen kudeaketa-eredua oso finkatua zegoen Eusko Jaurlaritzaren administrazio-antolakuntzan zentralizatutako sistemaren bidez. Eredu hori erkidegoko aldundi eta udal guztietan ezarri zen. Horrela, kultura-politiken mapa eredu zentralizatzaile eta, neurri handi batean, kontrolatzaile horrek zehazturik egon zen hasieratik.

Testuinguru horretan, 80ko hamarkadako egoeraren ezaugarriak hauek dira:

- EAEko administrazioa eraikitzeke prozesua.
- Nortasuna eta kultura egituratzeko proiektua.
- Krisi ekonomiko eta industrialia.
- Arazo politiko traumatikoa.

Gaur egun, gure herriko kultura-politika ulertzeko eta praktikatzeko modu bat kolapso-egoerara iritsi da. Administrazioak antolakuntza-egitura berritzeko du oraindik. Irizpide paternalista zaharkituetan oinarriturik dago neurri handi batean, eta horrek jarduera artistikoen sustapena oztopatzen du. Dena den, jarduera horiek gero eta gutxiago erantzuten diete artisten eta sortzaileen beharrei. Erakundeek belarria zorroztu eta antolakuntza-aukeren aniztasunaren ikuspegia berritzeari bidea emango dioten akordioak gauzatu behar dira. Administrazio publikoan desfase handia dago arteari buruz finkatutako ideiarene eta gaur egungo jarduera artistikoaren artean. Gaizki-ulertzeen gurutzatze horretan burugabekeria, nahasketa eta talka sortzen da makina sozialaren eta asmo artistikoaren artean. Kultura-politiken diseinuan fase berri bat ari gara bizitzen, eta fase horrek publikoa denarekin eta kultura kudeatzeko modu berriekin lotura handiagoa du krisi-garaiekin baino (krisiak egon badauden arren).

Eragile aktiboak

Gure ikuspegi artistikoaren benetako 'aktiboak' artistek eta eragile kulturelek osatzen dute. Horietako askok tokiko ospea nazioarteko onarpen hasiberriarekin kontrastatu dute. Errealitate kontrastatu hori tresna bikaina da ekimen instituzional eta independente batzuk baloratzeko, horien lanak egin baitu euskal sortzaileak artearen gaur egungo agertokian egotea.

Kontsumoa/marketina versus bitartekotza/trebakuntza

Arte eta artista garaikideek euskal esfera publikoan duten presentzia soziala eta eragina pixkanaka galtzen ari da, kulturaren arloan kokatzearen ondorioz. Artearen forma batzuk ospea galdu dute gizarteko segmentu garrantzitsu batzuentzat eta hori kezagarria da. Aldiz, ikusten dugu masek museoak inoiz ez bezala bisitatzen dituztela (datu horrek, ordea, ez du esan nahi sorkuntza garaikideaz gehiago jabetzen direnik) edo kulturako solaskideek ez dutela, ez materiari buruzko ezagutzarik, ez eta perspektibarik ere (politikaren beste arlo batzuetan ezinbestekoak lirateke). Ohartu gara hezkuntza plastikoak eta artistikoak tokia galtzen ari direla ikasketa-planetan, eta bien bitartean ikusten dugu termino hauek onartzen direla: 'irudiaren kultura', 'ikusizkoaren kultura', 'multimedia-hizkuntza'. Ikusten dugu teknologiararen eta kultura zibernetikoaren erabilera sustatzen ari dela eta ez dagoela irudi horien bonbardaketaren irakurketa kritikoki aztertzeaz arduratzen diren modulurik. Harritu egiten gara erakundeak erabiltzen duen 'arte publikoaren' ideia bide publikoa objektu harrigarriekin betetzera mugatzen dela ikustean, eta hori artea eguneratzeari (hirigintzari dagokionez) buruzko eztabaida, plan edo hausnarketarik egin gabe.

Artea ikuskizun gisa versus artea ikerketa gisa

Euskal sektore publikoak beste sektore batzuk aktibatzeke lorbideetat soilik erabiltzen du kultura, kultura eta artea eragile ekonomiko eta garapenerako eragile direla onartuz. Hala ere, zehazki kulturala dena ez da errentagarritasun-irizpide berdinekin ikusten. Gauza ez da erakusketarako toki gehiago edo gutxiago izatea, baizik eta produzitzeko, ikertzeko, esperimendatzeko aukera gehiago izatea, teknologia berrietarako sarbidea izatea, kultura trukatzeke eta hainbat kultura-trukerako aukera izatea.

Beraz, beharrezkoa da artearen ikuskera zaharkituak ahaztea eta Eusko Jaurlaritzaren jarduera artistikoak ulertzeko modua eguneratzea. Mekanika instituzional batzuek kudeaketa ezkutatu egiten dute talde eta kolektiboek kontsultak eginez, gero aurrez ezarritako planari aplikatzeko, eta beren planteamenduak itxuraldatzeko ideien bat hartzen dute kontsulta horretatik, adituen proposamenak seriotasunez eta determinazioz jaso gabe. Gainera, galderak eta kontsultak egiten direnerako, gobernuaren ekintza kultural batzuk bideratuta egoten dira.

Ondorioa.

Euskal erakunde publikoak kultura-politikarekiko erakusten duen joera, batetik, ikusizkoari eta garaikidetasunari buruzko klise zaharretan oinarriturik dago eta, bestetik, hezkuntza artistikoaren ezegonkortasunaz baliatzen da. Artea ikusizkoari buruz aurrez ezarritako eskemetan oinarrituz sustatzen da, eremu publiko hori eraiki eta bertan bizi behar duten herritarren trebakuntza kontuan hartu gabe.

2.2 Gaur egungo ekintza-lerroak

Eusko Jaurlaritzak hiru ekintza-ardatz ditu arte plastikoen arloan:

Gure Artea

Sari honen helburua arte plastikoekin lotutako diziplinen garapena sustatzea eta suspertzea da, eta euskal sormen-lana publikoki hedatzen saiatzen da
(www1.euskadi.net/Cultura/memoria2000/castellano/artes_plasticas.htm)

Sortzeko eta hedatzeko laguntza

2000. urtean agindu berri bat garatu zen. 32 milioi pezetako aurrekontua zuen arte plastikoekin lotutako jarduerak sbultzatzeko, eta bide batez, Euskadiko arte garaikidea sustatzeko eta banatzeko bidea eman zuen.
(www1.euskadi.net/Cultura/memoria2000/castellano/artes_plasticas.htm).


Hedatzea eta arte-galeriak

Hedatzeko beste lerro bat. Helburua euskal galeriei laguntzea eta nazioarteko azoketan parte hartzea sustatzea da.
(www1.euskadi.net/Cultura/memoria2000/castellano/artes_plasticas.htm)

Ondarea

Horrez gain, esan behar da ondareak baduela museoetara eta museoen jarduerara hedatzeaz arduratzen den ekintza-lerro bat. Ondare kulturalari aurrekontuen ehuneko bat ematen zaio eta 2000. urtean 150 milioi pezeta jaso zituen. Hirigune historikoetan, landako ondarean eta ondare industrialean, elementuak babesten (Ekain eta Intxurreko kastroa), seinaleztatzen eta egokitzen (Gipuzkoako monumentu megalitikoak eta Santiago bideko Zenarruza-Gernika zatia) lan egin da.

Kultura Sailaren ekintza-ardatzen egituraren eskema



Iruzkina

Eredu dibulgaratutatik proiektuaren ideia globalera

Administrazio publikoaren kultura-politika tradizionala sorkuntzaren ikuskera klasikoan oinarriturik dago. Ikuskera horretan ikusteko eta hedatzeko forma nagusiak erakusketa, irudikapena edo inaugurazioa dira, eta sorkuntza (arte-objektu baten produkzio gisa ulertua) artistaren erantzukizuna da soilik. Aurkezteko modu klasikoaren bidez formateatutako artea nahiko erraz 'erakusteko' aukera ematen duten areto gehiago sortzeak (beharrezkoak dira) kulturaren makinari funtzionatzen jarraitzen uzten dio eta 'obra soziala' ospakizun kultural gisa aurkezten uzten du.

Sorkuntza garaikidean gertatutako aldaketak direla eta (lehenengo atalean aipatu ditugu), ohiko ikusteko eta hedatzeko arauak gainditu, osatu eta berritu egin behar dira. Kasu askotan, 'proiektu' kontzeptuak 'erakusketa' kontzeptua ordezkatzeko, eta hedatzea zentzu zabalagoan ulertu behar da. Gaur egun, lanaren produkzioa eta hedatzea elkarren mendeko jarduerak dira eta biak aldi berean egiten dira. Artearen dibulgazioari soilik begiratzen badiogu, ikusiko dugun administrazio publikoa publikitate-eraginei lehentasuna ematen ari zaiela, eta sorkuntza eta ikerketa neurri berean laguntzen ez dituen beste egitura batzuen erantzukizuna dela onartzen duela.

Ikusizko artearen sektoreak artearen eredu hegemonikoetatik urrun lan egiteko laborategiak behar ditu. Argi dago asmo hori esku-hartze publikoaren bidez soilik bete daitekeela, eta horretarako, erakundeek eragile kulturelekin batera arrisku-konpromisoa hartu behar dute. Kulturari buruzko diskurtso politikotik hasi eta neurrien aplikaziora arte, artearen arriskuaren ideia finkatu behar da sektore tradizionalak eta merkataritza-arloak adostutako eta zuzendutako arauen bide alternatibo gisa.

Gizarte zibilean inbertitzea

Eusko Jaurlaritzaren gastu publiko kulturala etengabe igotzen ari den arren (2000. urtean % 25 igo zen) ezin da esan igoera hori estrategia jakin batzuen onerako eta beste batzuen kalterako egiten denik. Kopuru hori ondare kulturala sendotzeko eta azpiegitura eta ekipamendu handiak ezartzeko bideratu da. Beharrezko fase horren ondoren, orain herritarren sare bat sendotu behar da ekimen kulturaletan, sortzaileetan, esperimentaletan edo ohiko erretorikaren diskurtsotik independenteak diren ekimenetan.

Produkzio artistikoa bultzatzeko benetako politikarik ez dagoenez, azken urteetan egitura arinen multzo bat sortu da funtzio hori betetzeko. Gaur egun, gure erkidegoaren eta artisten bizitza profesionalean parte hartzen dute, baina horien egoera paradoxikoa da. Egitura horiek funtzio esanguratsua duten arren, ez dira agertzen ofizialki Eusko Jaurlaritzaren kultura-politikaren eremuan. Tokiko azpiegitura artistikoen artean bi errealitate oso ezberdin daude eta aurrekontuaren mailan programen kalitateen mailan baino gehiago nabarmentzen dira. Alde batetik, zalantzazko interesa duten erakusketa garestiak daude eta, bestetik, baliabiderik gabeko proiektu interesgarriak daude. Tokiko ingurune artistikoaren bizitasuna egonkortasun ekonomikorik ez duten hainbat protagonistei esker mantentzen da. Gizarte zibiletik eratorritako borondate politikoak eta ekimenek sortutako azpiegitura handien eta ertainen artean oreka ekonomiko handiagoa ezarri behar da, betiere, proiektuaren kalitatearen arabera. Ekimen horiek egonkortzeko, ezinbestekoa da dirua epe ertainera eta luzera inbertitzea.

Laguntza malgu eta bizkorrak ematea.

Oraingoz, ikerketa-artean lanean dabilzan egiturek diru-laguntza publikoen bidez eusten diote beren jarduerari, eta proiektu kulturalentzako deialdien mekanismoak arautzen dituzten politiken burokratizazioa jasaten dute. Adibidez, laguntza gisa behin-behineko aurrekontuaren ehuneko jakin bat bakarrik jasotzen den arren, diru-laguntzak justifikatzeko baldintzek emandako aurrekontuaren zenbateko osoa justifikatzea behartzen dute. Gainera, laguntza horien esleipenean eta ordainketan izaten diren gehiegizko atzerapenak proiektu independente ororen existentzia hipotekatzen du. Laguntzak proiektuak garatu behar liratekeen ekitaldia amaitu baino pixka bat lehenago ematen direnean eta eman ez den diru-kopuruaren egiaztagiria eskatzen denean, ordainketak eta kontuak ordaintzeke geldituz, orduan, arazoa ezinezko bihurtzen da. Funtzionamendu hori ezegonkortasun- eta hauskortasun-faktorea da tokiko ikuspegi artistikoaren sektore aktibo eta beharrezkoarentzat. Hori guztia sorkuntza abangoardistenaren, arte gaztearen eta multimedia-ikerketaren aukera berriak sustatzeko ekimenean aurka doa.

Artisten lana kontuan hartzea

Artisten elkarte eta kolektiboak lan artistikoa zein baldintzatan egiten den arretaz begiratzeko eskatzen ari dira. Gauza ez da artista egile bezala duin bihurtzea, lan egiteko dituen baldintzak duin egitea baizik. Programatzea, koordinatzea, komisario-lanak egitea, diseinatzea, itzultzea, garraio-lanak eta muntaia-lanak (arotzeria, pintura, etab.) onartuta daude profesionalki eta juridikoki, eta diru-ordaina jasotzen dute. Lan artistikoa, berriz, baldintza eskasetan egiten da, adibidez, kontraturik gabe, diru-ordain eskasa, segururik gabe, defentsa juridikorik gabe, etab. Hori guztia 'artistaren sustapenaren' koartadaren atzean ezkututzen da.

Beraz, erakundeek beharrezko pausoak eman behar lituzkete lan hori benetan onartzeko, eta bestalde, baldintzarik duinenean egin dadin behar adina oinarri eta baliabide ezarri behar lituzkete (kasu gehienetan, baldintza horiek artistaren ospearen arabera dira). Artistekin eta haien solaskideekin adostutako kontratuak ezarri behar dira, gehiegikeria-klausulak kenduz, egilearen eskubideak errespetatuz, lanen berezitasunak jasoz, etab.

Erabakiak hartzeko irizpideak ezartzea

Produktzio artistikoaren formulazio berrietara egokitutako irizpideak ezartzea beharrezko baldintza gisa agertzen da gure gizarteko ekimen kulturalen garapen iraunkor eta kualitatiboa bermatzeko. Erabakiak hartzeko erreferentzia gisa erabili behar diren kontzeptuetako batzuk azpimarratuko ditugu. Aurrena, lehentasuna ematea jardueraren ardatz nagusitzat produktzioa duten proposamenei. Arriskuaren faktorea beste irizpide bat litzateke. Irizpide hori egitura tradizionaletan (museo, unibertsitate edo galeria) tokirik ez duten proiektu edo ekintzetan aplikatuko litzateke. Beste irizpide bat gaur egungo gizartearekin eta artearen alorretik urrun dauden egitura edo kolektiboekin konpromisoak hartzea izango litzateke. Artearekin lotuta ez dauden alorretan zeharka jarduten duten jakintza-alor anitzeko proiektuak baloratu behar lirateke. Proiektu horiek zientzia, komunikabide eta politikarekin zerikusia dutenak eta arlo artistikoaren endogamia eteten dutenak izango dira. Azkenik, asmo handiko proiektu kualitatiboei lehentasuna eman behar zaie, artearen legitimazioaren nazioarteko sarean harpidetuz eta gaur egungo eztabaida artistikoekin lotutako edukiak egokituz.

3. Proposamenak

Beharrezkoa da aurrez definitzea erabakiak hartzeko modalitateak kokatuko dituzten ekintza-lerroak, orientabideak, helburuak eta mugak. Egile kulturalak laguntza eskatzen dutenean, eskaera horren bideragarritasuna zehazteko **iritziak** onartu behar dira. Izan ere, ikusizko arteen arlo zehatzak irizpideak eguneratzeko beharra du: irizpide batzuen alde egin behar du, sorkuntza artistikoaren osotasuna aztertzeke asmorik gabe. Irizpide horiek idazteko, erakunde publikoek eta eragile kulturalak **solaskide** legitimatua behar dute (edo instantzia solaskidea) eta 'bitartekotza-protokoloa' martxan jarri behar dute baliabideen kudeaketan koherentzia kulturala bermatzeko.


Laguntza-erabakiak kokatzeko kalitate-irizpideak ezartzeko beharra errebindikatzean eta 'bitartekotza-protokoloa' irekitzeko eskatzean, adierazten dugu agertoki artistikoan **inskribatuta, onartuta eta publikoki indartuta egon behar duten ekimenak detektatzeko** beharra dagoela.

Horregatik, arazo jakinei irtenbideak bilatzea proposatu dugu, gerta daitezkeen arazoan ondorengo lanari aurrea hartuz. Hori dela eta, proposatzen dugu arte plastikoaren arloko ekintza-ardatzei buruz hausnartzea eta **produktioari** dibulgazioari baino garrantzi handiagoa ematea.

Berregituratze horrek agerian uzten du **publikoaren eta pribatuaren arteko eredu nahasia** proposatzen dela. Hainbat irtenbide bi kultura horiek nahastean sortzen dira: pentsamendu publikotik kontzientzia etikoa aukeratuko genuke eta pentsamendu pribatutik pragmatismoa, jarduteko moduan eta erabakiak hartzeko prozesuan. Hain zuzen, izaera pribatuko hainbat proiektu edo ekimen zerbitzu publikoko lanak egiten ari dira, arte-produktoreen edo sorkuntza-laboregien funtzioa betetz. Hori administrazioek ez dute ekintza-lerroetan kontuan hartu orain arte.

Ondorioz, proposatzen dugu, batetik, kudeaketarako erreminta bizkorra sortzea eta, bestetik, erabakiak hartzean erabiliko den prozedura, 'bitartekotza-protokoloa', martxan ipintzea.

Arte plastikoen arloko ekintza-ardatzak berregituratzeko proposamenaren eskema



Produkzioari eta hedatzeari laguntza. Bitartekotza-protokoloa eta proiektuen bulegoa

Produkzioaren kontzeptua beste kultura-sektore batzuetan Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-lerro gisa agertzen da ('sorkuntza' antzerkian eta dantzan, 'produkzio zinematografikoa' ikus-entzunezkoetan, 'sorkuntza' musikan...), baina arte plastikoetan ez da espezifikoki agertzen. "Gure Artea" eta "Sortzeko eta hedatzeko laguntza" ardatzek ez dute behar hori betetzen, sustapenean eta dibulgazioan zentratzen baitira eta ez baitituzte gaur egungo sorkuntza artistikoaren berezitasunak kontuan hartzen.

Produkzioak, kultura-industrian duen irudiaren arabera, irabaziak lortzea du helburu, baina guk ez dugu irabazizko definiziorik eman nahi, hemen definizio esperimentalagoa, arriskuetsuagoa eta produkzioaren etorkizuneko definizioa bultzatzen dugu.

Arte-sistemaren zein egiturek jartzen dituzte beren gaitasuna, aurrekontua eta ikusizko izatea artisten proiektuak produzitzeko? Museo, galeria eta beste arte-zentro batzuen artean, gutxi batzuek dute funtzio hori. Dena den, sorkuntza artistikoaren zati batek artista/publikoa harremanaren kontzepzioa eta erabakitasuna produkzio- eta hedatze-klabeen ulertzen ditu, gakoak erakusketara eta zaintzea izan ordez. Erakuste-eskema tradizionalak funtzio akademikoa du gaur egun. Aldiz, azken urteetako proiektu garrantzitsuak sorkuntza-formatu alternatiboak eta publikoarekin erlazionatzeko modu berriak asmatzen saiatu dira. Erakundeek ez dute errealitate hori kontuan hartu, eta produkzio artistikorako diru-laguntzei dagokienez, horra bideratu behar ditugu ekintzak.

Bitartekotza-protokoloa

Bitartekotza-protokoloa prozedura bat da eta helburua erakundeek ekintzen koherentzia bermatzea da, produkzioari, hedatzeari eta trebakuntzari laguntzeari dagokionez erabakiak hartzeko orduan. Prozedura horren bidez, erakunde publikoak erakunde bat 'solaskide' edo 'bitartekari' izendatzea onartzen dute, gizarte zibiletik eratorritako proposamenak hautatzeko eta legitimatzeko. Erakunde edo erakunde-talde hori (bertakoak eta/edo nazioartekoak) arteko profesionalak osatuko dute eta haren zeregina izango da hautatutako ekintza-irizpideak bermatzea eta, behar denean, sorkuntzaren joera berriekin bat datozen ekintza-irizpideen berri ematea.

Aholkulari- eta bitartekari-paper horrek ('bitartekotza-protokoloaren' barnean dago) laguntza-politiken orientabideei eragiten die. Bere funtzio espezifikotako bat da Eusko Jaurlaritzaren eta ekimen artistikoen artean hiru edo lau urteko hitzarmenak adosteko prozesuan parte hartzea. Ekimen horien ibilbide profesionala ezarritako ekintza-irizpideekin bat etorriko da. Ondorioz, gobernuak onartzen du produkzio artistikoaren arriskua partekatzea hiru alderekin adostutako akordioaren barruan: administrazioa (babes-papera), erakunde bitartekaria (legitimatze-papera) eta eragile kulturala (produktore-papera). Horrela, Euskal kulturaren agertokian finkatutako proiektu independenteen eraginkortasuna, iraunkortasuna eta fidagarritasuna baloratzen diren egoera sortzen da. Egoera horretan, ekimen artistikoak egonkortu egiten dira eta laguntzak jasotzeko izapideek sortzen duten egonezinetik aske gelditzen dira, izapide horiek sarritan jardueren behar bezalako garapena oztopatzen baitute.

Proiektuen bulegoa

Baliabide publikoen erakunde kudeatzaile gisa osaturik, Gobernutik –beste bide batzuetatik edo beste deialdi batzuetatik– laguntza egonkorrik jasotzen ez duten proiektu jakinei laguntzak eta produktore eta eragile kulturaleri diru-laguntza zehatzak emango lizkieke urte osoan irekitako deialdiaren bidez. Bulegoa aipatu bitartekotza-protokoloetan zehaztutako laneko irizpideetan eta filosofian oinarriturik dago.

Proposamen horren ezaugarria da kanpoko erakunde batek baliabide publikoen administrazioa bateragarri egitea eta zerbitzu publikoaren eta gastuen kontrolaren funtzioa izaten jarraitzea. Horrela, kultura-arlotik kanpo, antzeko egoerak aurkitzen ditugu, adibidez, Eusko Jaurlaritzaren industria-ondareen kudeaketan, kudeaketa hori ekonomia mistoko enpresa baten bidez egiten baita. Herbeheretan, Mondriaan Fundazioa arduratzen da artista herbeheretarrei edo Herbeheretan bizi diren artistei diru-laguntzak emateaz, baita artista herbeheretarrak edo Herbeheretan bizi direnak gonbidatzen dituzten kanpoko egitura kulturaleri ere. Frantzia, AFAA elkarte kulturalak kudeatzen ditu atzerrian artea sustatzeko bideraturik dauden kanpo-arazoetarako ministerioko fondoak.

Beraz, beharrezkoa da kudeaketa-formula bat aurkitzea, horren bidez mende berri honetan sortu diren eta kulturaren egoera berri bat osatzen ari diren esperientzia berrien gaitasun guztiak garatzeko. Ildo horretatik, Ramon Zallok proposamen organiko administratibo berrien agerpena aipatu du. Proposamen horiek gizarte zibilera irekiak daude parte hartzeko izaerarekin eta kontrol politiko hierarkikoa desitxuratzen dute. Batzuetan organo erdi erregulatzailak sortzea proposatzen dute, erlatiboki autonomoak eta dagokion administrazioaren eragin zuzena mugatzen dutenak. Bestetan berriz, osaera mistoko erakunde publiko pribatuak sortzea proposatzen dute, baina izaera publikoa eta erabakitze gaitasuna dutenak.

Ezinbestekoa litzateke, proposatzen dugun ideia horren bidez, arteaz arduratzen diren erakundeen eta departamentuen arteko komunikazio-lerroak sendotzea. Horrela, batetik, erakundeen, aurrekontuen eta arte-zentroen ‘genealogia’ eskainiko litzateke eta, bestetik, baliabide kulturaleri buruzko informazioa proiektuak garatzeko behar duten pertsonen esku jarriko luke.

Halaber, komunikazio-lerro horiei esker, ekipamenduen ‘baliabide-mapa’ osatu ahal izango litzateke. Mapa hori eskuragarria eta publikoa izango litzateke, eta ekipoei buruzko informazio eguneratua eskainiko luke baliabide teknikoak ahalik eta gehien optimizatzeko.

Bulego horrek Euskadiko hainbat erakundetako kultura-sail zeharkatuko lituzke. Goian aipatutakoaz gain, arte-politiken behategiaren funtzioa eduki lezake, baita artearen egoeraren termometro gisa erabili ere. Horrela, bulegoaren beraren jardura baloratzeko eta artearen gabeziak eta beharrak eguneratzeko eztabaida-leku izango litzateke.

Zerbitzu hori gure inguruko arte eta kultura garaikidearen garapena aztertze leku aktibo gisa osa daiteke. Gainera, produkziarako edo hedatzeko diru-laguntzei buruzko kultura-politiken aldaketen bilakaeraren lehen eskuko balorazioa eskainiko luke. Ikuspegi orokor eta zehatz hori elementu baliagarria izan daiteke kultura-politikak etengabe behar errealetera egokitzeko.

Bulego horren kudeaketa, gainera, kudeaketa bera gauzatzeko gai diren erabaki politikoen baitan egongo litzateke, baina aldez aurretik esan behar da egitura erraza, azkarra eta eraginkorra behar duela. Azkartasun hori eta erantzuteko gaitasun horixe da arteen egoera aldakorrak eta biziak behar duena. Era berean, interesgarria litzateke ekintza horretan parte hartzeko atea irekita uztea jatorri desberdinetako pertsoneri. Pertsona horiek aldian behin berritu daitekeen kudeaketa-batzordea sor dezakete, batzorde edo 'tresna' hori zaharkitu ez dadin. Diru-laguntzak jasoko dituzten proiektuak hautatzean, lehen aipatutako kalitate-irizpideetan oinarrituko litzateke proiektuen bulegoa.

Ezinbestekoa da administrazio publikoak 'babestutako eremu' bat erresebatzea proiektuen bulegoaren 'tresna' horrentzat, aldaketa politikoei eraginik izango ez duten lekua, ekitaldi bakoitzean aurrekontu finko batekin eta erantzun zehatzak eskaintzeko asmoarekin. Horretarako, ulertu beharra dago administrazioaren mekanismo galarazi egiten dutela jardueramota hauetako lan-mekanika batzuk gordetzea. Tresna horrek tresna bera definitzen duten ekintza-formulekin lan egin behar luke bere lanaren eta emaitzen bidez, proiektu makroetatik edo gertakizun handietatik bereiziz eta 'masen kulturaren' kontzeptuaren beste aldean lanean arituz.

Hezkuntza koordinatzeko erakundea

Proposamen hau eta hezkuntzari dagozkionak lotzen dituzten alderdiak azpimarratuz, hau nabarmentzea komeni da:

- Ideia horrek lotura handia izan dezake hezkuntzarekin hainbat mailatan, baina, bereziki, unibertsitateko hezkuntzari dagokionez, graduondoko ikastaroen, masterren eta abarren bidez. 'Proiektuen bulego' horren bidez kudeaketa kulturalen espezializatutako langileen gabezia larriari aurre egin ahal izango baitaio. Langile espezializatuen falta horrek sistemaren ahultasuna erakusten du arlo horretan. Gainera, baliabideen gabezia handia detektatu dugu eragile kultural horien trebakuntzan. Hori dela eta, funtsezkoa litzateke muturreko egoera hori Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera aztertzea.
- Horrela, proiektuen bulegoaren jarduera eragiketa-eremu (edo mintegi) gisa erabili ahal izango litzateke kudeaketa kulturalaren formula berrientzat eta mailarik altueneko prestakuntzarekin lotutako produkzio- eta hedatze-ekimen berrientzat, mundu osoko arte-zentroetako zainzaileen laguntza eta parte-hartzearekin.

Hezkuntza-erakundeek hezkuntza artistikoaren eta ikusizkoaren garrantziaz eta horrek gizabanakoaren hezkuntza osoan duen garrantziaz jabetu behar dute, giza baliabideak eta baliabide material egokiekin hornituz behar bezala garatzeko. Ezinbestekoa da gizarte 'hiperbisualaren' eta hiper estetizatuaren eta hezkuntzaren arteko tarte izugarria gainditzea, eta ez hezkuntzak arduragabekeriak beste alde batera begiratzea eta bere programak ideia testual batean soilik oinarrituz egitea.

Laburbilduz, ezinbestekoa da, batetik, hezkuntza artistikoa eta ikusizkoa koordinatzeko erakundea garatzea unibertsitatekanpoko eremu guztietan, eta, bestetik, unibertsitatekan hainbat mailatan duen funtzioari buruz eztabaidatzea: trebakuntza-mailan (irakasleak, artistak, bitartekariak eta abar); ikerketa-mailan produkzio teorikoa eta ikertzailea sustatu behar du; kritika independenterako gordeleku gisa eta jarduera kulturalaren sortzaile gisa aritu behar du. 'Proiektuen bulegoan' unibertsitatearekin elkarlanean egiteko lanen bat presta liteke.

Garrantzitsua da aurrekontu bat izatea lankidetzaz hitzarmen egonkorren bidez beste gobernu edo nazioarteko erakunde batzuekin graduondoko bekak, truke-programak eta abar izateko. Programa horiek tokiko egoera artistikoaren eta euskal gizartearen mesederako profesionalak prestatuko lituzkete.

4. Laburbilduz

Baliabideak berriro orientatzea

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko diru-laguntzen eta baliabideen banaketaren atzean dagoen irizpideen nahasketak kezkatzen gaitu. Ez dirudi hainbat lan-lerroren orientazioa sortzaileen komunitatearen garapen kulturallean oinarriturik dagoenik, badirudi antzeko beste alderdi batzuetan jartzen duela arreta, eta garrantzitsuak izan arren, ez datoz bat norabide kulturalekin.

Urrutirago joan gabe, orain dela gutxi, Jacques Herzog arkitektoak hau esan zuen Guggenheim museoaren gainean: *“konpainia global baten portaera globalaren erakustaldi zirikoa iruditzen zait. (...) eta, Gehryren lanik onena dela pentsatzen dudan arren, museo bezala interes falta izugarria duela iruditu zitzaidan, gauzak espazio huts haietan erakusteko moduagatik, hiriarekin edo bertako jendearekin inongo harremanik gabe. Inoren objektu bat dela dirudi, denbora jakin baterako han ipini dena eta egunen batean lekuz aldatuko dena... Guggenheimen marka global gisa aurkezteko estrategiarekin bat etorritik, artea erabili beharrean tokiko komunitateko artistekin bat datorren erreminta gisa. Azkenean, arteak toki batean sustraiturik egon behar du, eta hortik aurrera, beste toki baterantz bideratu behar du.*

Herzogek Bilboko museoari buruz duen ikuspuntuari –hau da, museoa marka komertzial gisa erabiltzea komunitatearen zerbitzura dagoen ekipamendua izan beharrean– beste ikuspuntu bat gaineratu behar diogu, hau da, arte garaikide konprometituarekiko eta gure ingurunean eta nazioartean interesgarriagoak iruditzen zaizkigun adierazpenekiko duen interes falta. Erabat bere baitan biltzen da. Hala ere, aintzat hartzen dugu eragiketa turistiko komertzial arrakastatsu gisa duen ezarpena, horretaz ez dago zalantzarik. Neurri handi batean kezkatzen gaituena zera da, museoa % 65ean autofinantzatzen den arren, gainerako kopurua, 1.200 milioi pezeta inguru, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak soilik finantzatu du. Egokiagoa irudituko litzaiguke kopuru hori lotura zuzenagoa duten sailek beren gain hartzea.

Guggenheim museoan atzematen dugun bere baitan biltze hori hedatze kulturalaren beste zentro batzuen joera orokorra da, bai programetan, bai kokaturik dauden gizartearekiko elkarreraginean, bere ekintzen subjektu pasibo gisa soilik ulertuz. Dinamika horiek konpentsatzeko proposatzen dugu sorkuntza garaikidearekin konprometituta dauden zentro eta ekimenak sustatzea, eta horiek, aldi berean, ingurune sozial eta kulturalarekin lotutako artisten lanarekin konprometi daitezela.

Kultura Sailak –eta ez eragin zuzenagoa duten beste sail batzuk– Guggenheim finantzatzea kezka garria iruditzen zaigula adierazi dugu arestian. Ildo beretik, ez zaigu ongi iruditzen Eusko Jaurlaritzak arte-galeriei laguntza generikoak ematea proiektuen kalitatea aztertu gabe. Horren helburua erakustazoketara joatea da, eta xede nagusia objektuak saltzea. Horrekin ez dugu esan nahi erakustazokak beharrezkoak eta garrantzitsuak ez direnik, baina iruditzen zaigu laguntza horiek Industria eta Merkataritza Saitetik ere etorri behar luketela. Gure ustez, Kultura Saileko baliabideak bitartekotza-protokoloak ezartzen dituen irizpideen arabera eta proiektuen bulegoak babesten dituen proiektuak finantzatzeko izan behar lukete.

Eduki horiek hedatzeko beharrezkoa litzateke EITBren esku-hartzea. Kultura Sailaren aurrekontuaren zatirik handiena Euskal Irrati Telebistari dagokio. Badakigu euskal telebistak zailtasunak dituela gainerako telebista publiko eta pribatuen lehiari aurre egiteko. Horregatik, iruditzen zaigu beharrezkoa dela arriskatzea kalitatezko telebista bihurtzeko. ETB1 gisako katea edukitzea (biztanleen % 6ak ikusten du eta 6.800 milioi pezeta inguruko aurrekontua du), batetik, eztabaidagarria da hizkuntzarentzat eta, bestetik, arduragabea telebista publiko batentzat, eta neurri batean, ikusleekiko errespetu gutxikoa dela iruditzen zaigu, alderdi hauek kontuan hartzen baditugu: ETB1en apustua hizkuntzaren normalizaziora eta eduki jakin batzuetara mugatzen da –neurri handi batean, herri-tradiziokoak–, edo programa kopiak emititzera, telebista pribatu batzuen formatu arrakastatsuetan oinarrituta; ikusle-kopuruari kirol-emanaldien bidez eusten dio –futbola eta bertako kirolak– (iragarkiak gaztelaniaz, futbol-partidaren garrantziaren arabera). ETB1en, euskarazko kalitatezko programazioaren aldeko apustua egin behar da, eta eragile kulturalak parte hartu behar dute: artistak, idazleak, musikariak; zientzia eta teknologiarik tokia egin behar zaio, formatu berriekin ausartuz eta hiriko jendeak parte har dezan eginez. Horixe da hizkuntza normalizatzeko, kultura, zientzia eta teknologia sustatzeko eta arte eta sorkuntza garaikideak ikusgarri egiteko modurik onena. EITBk gaur egungo sorkuntza ahaztu egiten du sistematikoki (bereziki ikus-entzunezkoa) eta badirudi ez dela gai sorkuntza hori esparru garaikidean aurkezteko. Apur bat hurbiltzen denean, ohiko klixek errepikatzen dira, modernitate zaharkituari eusten dioten horiek. Egoera horren alternatiba da artearen kontzeptua egokitzea eta eguneratzea; artea testuinguru politiko eta soziokultural jakin batean eragiten duen elementu gisa ulertuta, artea ‘objektu artistikoa’ hedatzea dela dioen ideia azpimarratu beharrean.